

2024. urteko dirulaguntzen deialdia

Eremua: GAZTERIA

Diru-laguntzen 1go. lerroa: ume, nerabe eta gazteentzako programei eta jarduerari laguntzea

1. artikulua. Esparrua eta xedea

1.1. Gazteria eta Kirol Sailak, Gazteria Arloaren barruan, diru-laguntzak emateko deialdia egin du Bilboko Diru-laguntza Plan Estrategikoko 6. xedea -*Bilboko herritarren artean aisialdiarekin eta astialdi sortzaile eta arduratsuarekin lotutako jarduerak bultzatzeko, arreta espezifiko haur eta gazteen kolektiboan jarrita*- lortzen laguntzeko, "Ume, nerabe eta gazteei zuzendutako programak eta jarduerak sustatzea" izenburupeko diru-laguntza ildoaren bitartez. Honekin, hezkuntza arloan ume, nerabe eta gazteei zuzendutako programak bultzatu eta zabaltzea nahi dira, astialdia eta aisialdia sustatzeko asmoz.

1.2. Gauzak horrela, hona hemen deialdiaren helburuak:

- Gizabanako gisa ume eta nerabeen hazkundera eta berdinen arteko harremanak bultzatzeko jarduerak sustatzea, gaitasun pertsonal eta sozialak garatzearen bitartez.
- Sormena, ekimena eta ekintzailatza bultzatzea eta gizarte eta kultura arloko programazioan ume, nerabe zein gazteen parte-hartzea nahiz inplikazioa sustatzea. Hala, Bilbo garatzeko beraiek izango dira protagonista nagusiak eta haien esku egongo da horretarako ekimena.
- Nerabeen osasun fisiko eta mentala sustatzea. Horren barruan, arriskuko jokabideen prebentzioa eta ohitura osasungarrien sustapena daude.
- Adingabeko eta gazteen bizitzaren arlo guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, beraien kultura-identitatea osatzen duen elementu gisa.
- Txiki-txikitatik, balioetan oinarritutako heziketa (aniztasuna errespetatzea, genero-berdintasuna...), bizikidetzak, belaunaldi arteko harremanak eta herriartasun aktiboa sustatzea.

1.3. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- Beste udal sailek zein erakundeek edo bestelako herri-erakundeek egindako deialdien helburu zehatzei erantzuten dieten proiektuak: besteak beste, astialdiko eskoletan egindako prestakuntzako ikastaroak; Bilboren barruko eta Bilbotik kanpoko udalekuak eta egonaldiak antolatzea eta garatzea; gazte-informazioa emateko bulegoen mantentzea eta arreta; prestakuntza-programak; ikasketak; edo argitalpenak.
- Azpiegiturari emandako laguntza; erakundearen lokalak mantentzea; eta erakundearen berri emateko tresnak.
- Haien eragin-eremuan edo erreferentzian, Bilbo eta bilbotarrak barne hartzen ez dituzten proiektuak.

1.4. Gauzatzeko epea:

Lerro honen bidez diruz lagundutako jarduerak 2024ko ekitaldian gauzatu beharko dira.

2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia

Eskaerak ebazteko prozedura honako hauen arabera egingo da:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO).
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta lege hori garatzen duen araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arrunta.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeakoa.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Diru-laguntza eskatu dezaketen erakundeak: Hezkuntza arloko programa edota jarduera ez-formalak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak, ume, nerabe eta gazteei zuzendutakoak, aisia aktibo eta positiboa, ekimena eta sormena nahiz ohitura osasungarriak sustatzen dituztenak.

Gazteriaren arloan, 2 laguntza-lerro deitzen dira. Eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da Gazteria arloan.

3.2. Hurrengo eragile hauek laguntza honetatik kanpo daude:

- Ikastetxeak; guraso-elkarte eta erakundeak; eta arlo akademikoan zein eskolaz kanpokoan proiektuak burutzen dituzten beste guztiak.
- Auzo Elkartek.

3.3. Elkarte eskatzaileek Bilboko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Entitateen Erregistroan (Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030 Agenda eta Nazioarteko Galetarako Saila) inskribatuta eta datuak eguneratuta eduki beharko dituzte. Pl. Venezuela 2, 4.a).

Salbuespenez, elkartearen egoitza Bilbon ez daukaten irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta, hortaz, udal erregistro horretan ez daudenek, jarduera puntualak Bilbon egin nahi badituzte, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan izena nahitaez ematea eskatuko zaie.

3.4. Entitate eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte, diru-laguntza eman, betebeharra onartu eta ordaintzen den unerako.

4. artikulua. Aurrekontu-kredituak

4.1. Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu-kodearen (**PEP 2024/00197**) eta **2024** ekitaldirako onartutako gastu-proiektuaren kontura finantzatzeko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa **25.000 €** da.

4.2. Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura

5.1. Diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzari **aplikatzeko erregimena norgehiagokoa izango da:**

-Norgehiagoka-erregimenean, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskariak alderatzen dira, lehentasun-ordena ezartze aldera, 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera. Gero, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie, betiere deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

5.2. Norgehiagoka sistema erabiltzen den kasuetan, behin gutxienerako atalasera helduta (50 puntu), emateko diru-laguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren araberrako portzentaje bat aplikatuz, taula honi jarraikiz:

Programari emandako puntuak	Emateko diru-laguntzaren %
80 puntu baino gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 100
70-80 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 70
70 puntu baino gutxiago	Eskatutako zenbatekoaren % 50

6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak

Hezkuntza arloko aisiako eta astialdiko programa eta jarduerak (hezkuntza ez-formala), ume, nerabe eta gazteei zuzendutakoak, aisia aktibo eta positiboa, ekimena eta sormena nahiz ohitura osasungarriak sustatzen dituztenak.

Gehienezko diru-kopurua, programako..... 1.000 €

Gutxienezko puntuak 50 puntu

Gehienez aurkez daitezkeen programak elkarte bakoitzeko 1

Gogoratzen da elkarte bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango duela Gazteria arloan.

7. artikulua.- Eskabideak

7.1. Aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2024ko otsailaren 16an amaituko da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian (www.bilbao.eus).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean (www.infosubvenciones.es).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3. Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren webgunearen** bidez eginez gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak egin behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bana bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen arabera.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan lege ezarritako gainerako lekuetan.

7.4. Erakundearen legeko ordezkari edo legeko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanez adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen

martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 21bis, 2 artikuluek ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

7.5. Diru-laguntza eskariek ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

7.6. Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantzazioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

7.7. Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki deritzen argibide guztiak eskatu ahal dizkie erakunde eskatzaileei.

7.8. Programa bakoitza diru-laguntzen udal-lerro baterako soilik aurkeztu beharko da.

7.9. Gazteriaren arloan, 3 laguntza-lerro deitzen dira. Eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da Gazteria arloan.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskaria **Udalaren webgunearen** bidez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "GAZTERIA" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.2. Eskaria **udal erregistroan** aurkeztu bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Eskabide orria, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "GAZTERIA" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.3. Eskaera sinatzen duenak baimentzen dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren ordainketa egunean daukan. Dena dela, ez baimentzeko aukera izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

8.4. Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

8.5. Elkartek ez diren erakundeek dokumentazio hau eraman beharko dute:

- Dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Elkartearen estatutuen fotokopia.
- Egoitza edo ordezkaritza Bilbon duela egiaztatzen duen dokumentazioa.

8.6. Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak ez zuzenduz gero eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

9. artikulua. Balorazio-irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

A) Programa baloratzeko irizpideakGUZTIRA 85 puntu

a) Programaren interesa. Gehienez 48 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Udal Sailen ildo estrategiko, helburu eta irizpideekin bat etortzea; parte-hartzaile kopurua; aurreikusitako eragina; berrikuntza eta teknologia berrien erabilera; eremu geografikoa; programaren iraupena; kolektibo hartzailea; programaren finkapena (aurrez landutako programen kasuan); beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea; jarduera non gauzatzen den.

b) Programaren diseinuak duen kalitatea. Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Honako hauek sartzea: zer emaitza lortzea espero den, programa zenbateraino bete den jakiteko eta ebaluatzeke adierazleak, kanpo-komunikazioa, barne-komunikazioa, justifikazioa (programa gauzatzeko arrazoiak).

c) Aurrekontua egokia izatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Finantza-ahalegina (beste finantzazio-iturri batzuk bilatzea), baliabideak modu eraginkorrean egokitzea, eta programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko erlazioa.

d) Programan gai hauek zeharka nola lantzen diren: euskara, genero-berdintasuna, kultura-artekotasuna, gazteria, irisgarritasuna, osasuna..... Gehienez 17 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

✓ **Berdintasuna:.....Gehienez 5 puntu**

Baliabideak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, kirolak, denbora, aisia, parte-hartze soziala eta politikoa, enplegua, osasuna...) eskuratzeko eta kontrolatzeko emakumeen eta gizonen egiturazko desberdintasunak kontuan hartzen dituzten programak, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria errotik kentzeko helburu, ekintza eta/edo neurri zehatzak jasotzen dituztenak.

- ✓ **Euskara:****Gehienez 4 puntu**
Herritar elebidunentzako euskarazko jarduerak dituzten programak.
- ✓ **Kulturartekotasuna:****Gehienez 2 puntu**
Kultura-aniztasuna eta lurraldeko migrazioei eta babeslekuei bereziki lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten programak, horiek aitortu eta ikusaraztera, berdintasuna sustatzera eta diskriminazioaren aurkako borrokara bideratutako helburu eta ekintzekin, bai eta aniztasun-testuinguruetan elkarrekintza positiboa sustatzera ere.
- ✓ **Gazteak:**.....**Gehienez 2 puntu**
12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako jarduerak dituzten programak.
- ✓ **Ezgaitasuna:**.....**Gehienez 2 puntu**
Ezgaitasun fisiko, sentensorial eta intelektualak duten pertsonen erabateko parte-hartzea errazteko jarduketak edo zerbitzuak biltzen dituzten programak.
- ✓ **Osasuna:**.....**Gehienez 2 puntu**
Portaera eta jokabide osasungarriak garatzen laguntzen duten programak, osasun-arloko desberdintasunak azpimarratuz.

B) Erakunde eskatzailearen balorazioaGUZTIRA 15 puntu

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Bidezko egitura; 30 urte edo gutxiagoko bazkideen kopurua (%); programa lantzeko gaitasuna; 30 urteko edo gutxiagoko pertsonen partaidetza (%) erakundearen zuzendaritza-organoetan.

10. artikulua. Izapideak eta balorazioa

10.1. Prozeduraren izapideak egiteko eskumena **GAZTERIA ETA KIROL SAILEKO ZUZENDARITZA**ri atxikitako langileek izango dute.

10.2. Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak ezarritakoari jarraituz osatu eta hauek izango dira:

Presidentea: **GAZTERIA ETA KIROL SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA**

Idazkaria: **IDAZKARITZA TEKNIKOAREN NEGOZIATUA**

Kideak: **GAZTERIA ETA KIROL SAILEKO ZUZENDARIA**

UMEEN GAIETARAKO NEGOZIATUA

GAZTERIA ATALBURUTZA

10.3. Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

10.4. Instrukzio-organoak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berraztertzea

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko

oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

- A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

- B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua. Ebazpena

12.1. Prozedura ebaztea Gobernu Batzordeari dagokio.

12.2. Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntza eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri dezakete Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jarri dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, hilabete biko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

13.1. Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantzazio gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

13.2. Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

13.3. Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeari aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu bazaio eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantzazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzten kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan. Hala ere, hartzaileen eta hedabidearen ezaugarriak kontuan izanda, euskara hutsean egin ahal izango dira.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua. Azpikontratazioa

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute. Era berean kontuan izan beharko dituzte Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak sartutako betebeharrak.

16. artikulua. Programa aldatzea

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzordeak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoak aldatzea.

- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

17. artikulua. Uko egitea

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantzazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea

19.1. Justifikatzeko epea

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa gauzatu ondoren jaso badute.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

19.3. Justifikatzeko sistema

19.3.1. Norgehiagoka. diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du, honela:

Justifikazio-kontuan honako hauek jaso behar dira:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin. Gainera, memoria horretan honako datu hauek jaso beharko dira:

- Onuradunak, guztira (sexuaren eta kolektiboaren arabera).

- Euskara erabiltzen duten jardueren kopurua.
 - Diruz lagundutako programen kopurua.
 - Laguntza jaso duten elkarteen kopurua.
 - Onuradunen batez besteko adina.
- b) Programaren egikaritzeari dagokion gastu eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera egina.
- c) Programa egikaritzeko gastuen fakturen zerrenda, emandako ereduaren arabera egina.
- d) Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:
- Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagiriekin, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren gauzatzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaportea). Alde horretatik, zenbatekoa 200 euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzailearen banku-kontuan egin izanaren egiaztatzea ere aurkeztu behar da, nahitaez.

Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztu behar dira.

- Zeharkako kostuei dagokienez, ez da frogagirik aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jardura gauzatzen den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

- e) Diruz laguntzeko moduko kontzeptu baten zenbatekoa sektore publikoko kontratazioari buruz indarrean dauden legeetan kontratu txikietarako¹ ezarritako zenbatekoak baino handiagoa bada, erakunde onuradunak, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu behar ditu, gutxienez.

Eskaintza horietako bat aukeratzeko, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak aplikatu behar dira. Alde horretatik, eskaintzak justifikazioan edo, hala badagokie, diru-laguntza jasotzeko eskarian aurkeztu behar dira, eta, proposamen ekonomiko onena aukeratzeko ez bada, memorian berariaz justifikatu behar da.

19.4 Justifikatzeko beste betebeharrak.

Memorian hizkuntza eta/edo irudi ez-sexistak erabili behar dira. Gainera, baloratu eta puntuatutako zeharkako politikei buruzko datuak aurkeztu beharko dira (berdintasuna, euskera, gazteak, kulturartekotasuna, ezgaitasuna, Osasuna).

19.5. Justifikaziorik ez edo justifikazio nahikorik ez.

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14. artikuluan aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.

¹ Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kontratu txikitat hartuko dira 40.000 eurotik beherako kontratuak (BEZ kanpo), obra-kontratuak direnean; edo 15.000 eurotik beherakoak (BEZ kanpo), hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean.